

69. atala: Bakarka

Loteria eta

69.1.- Entzun audioa eta aukeratu erantzun zuzena:

1. Astronautak etxera itzuliko dira ...

- a) Eguberri-kantak kantatzeko.
- b) Urteberrirako.
- c) Gabon Gauerako.

2. Loteria erosi dute...

- a) Tasiok eta Kevinek.
- b) Kevinek eta Eskisabelek.
- c) Eskisabelen Extremadurako familiak soilik.

3. Loteria-kontuetan bi astronautak ez datoz bat.

- a) Tasioren ustez, uko egin behar zaio Espainiako loteria erosteari.
- b) Kevinek aberri guzietako loteria erosten du, bereziki, Espainiako eta Laponiako.
- c) Tasiok ez du loteria erosten, ez espainiarra, ez euskalduna.

4.- Duela urte mordoia ...

- a) ETAkide batek sasitan aurkitu zuen diru-pila bat, eta ezin izan zuen ezer esan.
- b) Espainiako sari nagusia tokatu zitzaion ETAkide bati eta lagun bati eskatu zion dirua kobratzeko.
- c) ETAkide batek laguna galdu zuen, honek Espainiako loteria jokatzen zuela jakin zuelako.



69.2.- Loterian sari handia tokatu zaizu zuri aurren, eta ikaskideei zerbait ematea pentsatu duzu. Idatzi taldeari mezu bat berria jakinaraziz eta bakoitzari zer emango diozun esanez. Aukeratu bakoitzarentzat oparirik egokiena, edo, zure ustez, merezi duena.

Ikasbileko fitxa: [2384022](#)



69. atala: Bakarka

Transkripzioa (03:09)

T- Eskisabel kapitaina, aldaketarik gure itzulera-planean?

E- Ez, Tasio, guztiak berdin jarraitzen du; urteberrirako bueltan zarete.

T- Ea hala den.

E- Azken finean ez zaizue hain gaizki atera, eh?

T- Nola hain gaizki?

E- Badakizu, atzerapenik izan ez balitz, zuek, historiako gure lehen bi astronautak... ortzinautak... ETBn eguberri-kantuen programa grabatzen ariko zinatekete oraintxe.

E- Aizue, eta zuek lortu al duzue?

K- Bai. Niri lagun batek erosi zidan.

E- Ba niri, Extremadurako familiak.

K- Zuk, Tasio?

T- Bah! Nik ez diat horretan parte hartzen.

E- Ze marijusti zaren batzuetan, Tasio!

T- Johnsonek egiteak ez nau harritzen, baina zuk, kapitaina, e? Lotsagarria da. Traidoreak.

E- Nik ez dakit zergatik uko egin behar diogun Espainiako loterian jokatzeari.

T- Geure loteria propioa daukagulako, adibidez, e?

K- Tasiooo, sariak ezin dira konparatu.

T- Diruak, beraz, edozer gauza eros dezake... duintasuna, ideologia, aberria...

E- Bueno, bueno, Tasio. Ez da hainbesterako, e?

T- Zertarako orduan independentzia? Aukerarik txikiena tokatu orduko Espainiara edo Frantziara begira jartzeko, e?

K- Aizu, azken finean zer da independentzia? Kirol-selektzioak eta azalean izen ezberdina duen pasaporte bat. Hori besterik ez.

T- Ez diat hirekin hitz egin nahi, e? Nazka ematen didazue.

K- Niri berdin zait loteria espainiarra, euskalduna edo Laponiakoa den. Diruak ez du aberrik.

E- Eta zuk, Tasio, independentziaren aurretik ez zenuen loteriarik erosten ala?

T- Horrek ez dauka zerikusirik.

E- Jakina baduela! Ez al zara akordatzen eskandalu hartaz?

E- Duela urte-mordoa gertatu zen.

K- Konta, konta, nik ez dakit ezer eta.

E- Etakide bati tokatu zitzaion loteria.

K- ETA... ETA?

E- Bai, ETA

K- Eta?

E- Ba, sasian zegoenez, ezin zuen kobratu saririk.

K- Baina ETakoek ere erosten zuten Espainiako loteria?

E- Dirudienez, Espainiako loteria erosten ez zuen euskaldun bakarra Tasio da.

K- Eta ETA-kideak azkenean kobratu zuen?

E- Lagun bati eman zion, loteria-dezimoa hark kobratu zezan, eta...

T- Eta galera bikoitza izan zuen: saria eta laguna galdu zituen.

E- Okerrena, ezin zuela ezer esan, loteria tokatu zitzaiola ezin zuelako onartu.

K- Nik uste dut Tasio moskeatu egin dela. Ez zekielako ETBko eguberri-kantuak kantatzera gonbidatua zegoenik.

E- Benetan, Tasio? Ilusioa egiten zizun ETBko eguberri-galan kantatzeak?

T- Eta hala balitz, zer? Utz nazazue bakean, traidoreak!

K- Ba abestu, nahi baduzu, Tasio. Gaur egun egokia da. Hasi San Ildefonsoko hurrekin zenbakiak kantaaaaatzen... jajajja.

Erantzunak

69.1.-

b); b); a); b)